



Bertsoak eta abestiak kantatu ostean, taldeko argazkia egin zuten igande eguerdian Ibarako plazan. I.T.

Korrikaren lekukoa hartu du Tolosaldeak

‘Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!’ dinamikarekin bat egin dute Tolosaldeko hainbat herrik, Korrikaren amaiera irudikatuz; 2022 urtekoa «inoiz baino beharrezkoagoa» izango dela esan du AEK-k // 4

Musika eta dantza uztartuko ditu Tolofolk jaialdiak


Jeajeaka elkarteak antolatuta, apirilaren 7tik 11ra izango da; bertako nahiz atzerriko artistek hartuko dute parte // 3

Berdintasun Kontseilua eratzeko arautegia onartu dute

Azken Tolosako osoko bilkuran onartu dute; kide anitzeko organoa izango da eta aholkularitza zerbitzu modura funtzionatuko du // 2

Txapelketa mistoan lehen postua lortu du Ibarra sokatira taldeak

Denboraldi osoan bigarren postuak lortu ostean, larunbatean garaipena eskuratu zuten; denboraldi bukaera «ezin hobe» izan dela diote // 7



**PASA ZAITEZ EUSKALTELERA
31 BAINO LEHEN ETA
ESKURATU REALAREN
KAMISETA OFIZIALA**

Zain gaituzu **Tolosako eta Beasaingo** gure dendetan.
Unitate mugatuak... Ez zaitez gabe geratu...

Lau fasetan gingo dituzte Euskal Herria plazako lanak

15 aste iraungo dute arkupeetako zoladura berritzeko lanek, eta hasi baino astebete lehenago jakinaraziko du udalak

Josu Artutxa Dorronsoro

Aurtengo aurrekontuetan txertatutako hirigintza proiektuetako bat da Euskal Herria plazako arkupeetako zoladura berritzeko obra. Lan horiekin hasi aurretik, ordea, bertako bizilagun, ostalari, Bide-Bide hoteleko jabe, Topic-eko ordezkariekin eta azoko ekoizleekin bildu da udala, lanen inguruko xehetasun guztiak azaltzeko eta sortu zitezkeen zalantzak argitzeko.

Plazako arkupe azpiko zoladura berritzea da lanen helburu nagusia. Hala ere, horrez gain, hiri altzariak (besteak beste, eserlekuak eta iturria) berrituko dituzte, eta saneamendu sareko harguneak eta sare elektrikoaren kanalizazio osagarria ere gauzatuko dituzte.

SARRERA, BETI BERMATUA

Lau fasetan gauzatuko dituzte lanak, bizilagun eta herritarren artean ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko. Fase bakoitzean arkupeen alde bat berrituko dute: lehenik, Topic museoaren aldekoa; ondoren, Antonio Lekuona kalearen aldekoa; gero, Andia kalearen aldekoa; eta azkenik, Rondilla kalearena. Azken fasean obraren eremu osoko amaierako lanak egingo dituzte.

Guztira, hamabost asteko iraupena eta 271.000 euroko aurrekontua izango dute lanek. «Uneoro bermatuko dugu eraikinetarako sarrera, plazarako hiru sarbideetatik bi zabalik egongo baitira obrek irautean duten bitartean, eta oraingo behintzat, ez da zerbitzu-sareen mozketarik aurreikusten. Gainera, lanekin hasi baino astebete lehenago jakinaraziko diegu herritarrei», adierazi dute udaletik.



Tolosako Udaleko zinegotziek aho batez onartu zuten Berdintasun Kontseilua eratzeke arautegia. ATARIA

Berdintasun Kontseilua osatzeko prozesua abiaraziko du udalak

Eragile ezberdinekin kontrastatu ondoren, aho batez onartu dute kontseilua eratzeke arautegia; kide anitzeko organoa izango da eta aholkularitza zerbitzu bezala funtzionatuko du

Josu Artutxa Dorronsoro

Urtarrilean onartu zuen Tolosako Udalak Euskara Kontseilua arautzeko ordenantza, eta azken osoko bilkuran, Berdintasun Kontseiluarena onartu zuen, aho batez. Hizkuntza eta berdintasun politikak elkarlanean eta era koordinatuan garatzea dute helburu kontseiluek. Hori dela eta, eragile eta herritarrekin elkarlanean landu eta garatu dute arautegia, beren ekarpen eta laguntzarekin osatuz. Ondoren, Berdintasun Mahaiarekin partekatu eta kontrastatu dute.

Emakume, herritar eta elkarte guztiei politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean, modu askean, parte hartzeko bide ematea eta udal bizitzaren esparru guztietan emakumeen presentzia, partaidetza eta aitorpena areagotzea dira Berdintasun Kontseiluaren helburuak. «Emakumeen topaketarako eta eztabaidarako gunea izango da,

eta emakumeek izandako presentzia eta indarra areagotzea ekarriko du», adierazi du Joxe Mari Villanueva zinegotziak. «Azken urteetan asko egin da, baina oraindik gehiago dago egiteko», gehitu du.

Kontseilua kide anitzeko organoa izango da, eta aholkularitza zerbitzu modura funtzionatuko du. Irekia izango da, beraz, bertako kide ez diren gainerako emakumeek ere, norbanako edo erakunde nahiz talde modura parte hartu dezakete, aholkuak emanaz. «Urrats garrantzitsua da, oraingo dinamika eusteaz harago, dinamika berriak sortzeko aukera emango duelako. Berdintasunaren helburua lortzeko beste mugarri bat izango da, edo hori da behintzat gure asmoa», azaldu du Olatz Peon alkateak.

BIDEAK ZABALTZEKO BEHARRA

Oposizioaren hitzetan, «albiste pozgarria» da. Hala ere, «kontra-esanak» daudela esan du Olatz

Artola EH Bilduko zinegotziak. «Agerian geratu da legealdi honetarako, ustezko gardentasuna, eta etengabeko komunikazioa eta parte-hartzea sustatzeko udalak azaldutako asmoa. Egiari zor, gure ustez, errealtatea bese-telakoa izan da. Udalak ateak itxi ditu, herritarrei bideak zabaldu ordez, bideak zailduz. Kontuan izan behar dugu, oso garrantzitsua dela herritarrek entzutea, beraiek egiten dutelako herria. Bi bideak zabaldu behar dira, norberak berea egin dezan, baina biek elkarrekin. Herrigintza egitea ere bada guk egin dezakegun hautu bat».

Udal taldearen ustez, «prozesu hau ezin da herriko emakume taldeek eta eragile feministek egindako lanik gabe ulertu». Berdintasun Kontseilua eratzeke bidean, Ana Sanz tolosarrak ere hartu du hitza azken osoko bilkuran. «Batzordekidea izateko bi hizkuntza jakitea eskatzen da; gure ustez, ez luke horrela izan

behar, erabaki diskriminatzailea izan daitekeelako. Ez gaude prest euskaraz ez dakitenei partaidetza ukatzeko», adierazi du.

KONFIANTZAZKO HARREMANA HERRITARREKIN

Bestetik, udalaren eta herritarren arteko harreman elektronikoa sustatze aldera, datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapenak egiteko beharrezkoak diren dokumentuak onartu zituzten bilkuran. «Teknologia berrien erabilera indartu nahi dugu, eraginkortasunean, gardentasunean, gobernu onaren printzipioetan eta partaidetzan urratsak egiteko. Beharrezkoa da herritarrei tramiteak online egiteko aukera zabaltzea», esan du Xabier Balerdi zinegotziak.

Balerdiren ustez, «ezinbestekoa» da neurriak indartzea, «berreziki, herritarren eskubideak bermatzeko eta konfiantzan oinarritutako harremanak sustatzeko. Herritarrek lasaitasun osoa izan behar dute, udalak euren datuak konfidentzialtasunez erabiliko dituelako. Datuak babestuta daude eta konfidentzialtasuna zorrotz errespetatu eta bermatuko da». Horretarako, herritar guztien eskura jarriko dira inprimaki guztiak, udal webgunean. Halaber, kudeaketa sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzeko eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko Segurtasun Batzordearen egitura zein izango den ere onartu dute.

TERRAZEK, ESPAZIO GEHIAGO

Larrialdi egoera ezarri zenetik, udalak hainbat neurri hartu ditu pandemiari aurre egin eta jarduera ekonomikoa babesten eta sustatzen jarraitzeko. Ostalaritza dagokionez, aurtengo terrazen tasak ez kobratzea erabaki ondoren, azken bilkuran, segurtasun neurriak eta tarteak errespetatzen jarraitu ahal izateko, ostalaritza-jarduerei lotutako terraza-azalerak handitzeko hartutako neurrien bigarren luzapena onartu zuten.

Gauzak horrela, ezarrita dauden neurriak indarrean dirauten bitartean, espazio publiko handiagoa erabili ahal izango dute ostalariak, beren terrazak kokatzeko. «Udalak betiere irisgarritasuna, mugikortasuna, sarbideak eta herritar eta bizilagunekin elkarbizitza bermatzen direla zainduko du. Egoera normaltasunera itzultzean, neurri hau indargabetu egingo da eta ohiko egoera eta espazioetara itzuli beharko dute terrazek», azaldu du Nerea Letamendia zinegotziak.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Tolofolk, herrikoia eta munduko musikak lotuz

Jeajeaka kultur elkarteak zazpi kultur ekitaldiz osatu du Tolofolk jaialdia, udalaren laguntzarekin; apirilaren 7tik 11ra izango dira ekitaldiak



Zuzeneko musika eta guzti, Tolosako Plaza Zaharrean aurkeztu dute jaialdia elkarteko kideek eta udal ordezkariak. E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Tolosako kultur agenda «biziberritzeko eta osatzeko» helburuarekin, Aste Santuko Pazko asterrako, Tolofolk jaialdia antolatu dute. Pandemia egoera bete-betean sortutako egitasmoa da. Jeajeaka kultur elkarte sortu berriak, Tolosako Udalaren laguntzarekin eta babesarekin atera du aurrera.

Apirilaren 7tik 11ra izango dira ekitaldiak, Tolosako plaza eta leku ezberdinetan. Musika eta dantza uztartzen dituen egitaraua da aurkeztu dutena, eta Tolosako, Gipuzkoako eta atzerriko talde eta artisten parte hartzea izango du.

Kulturaren aldeko apustua egin dute, eta Tolosa kultur arlo-

an erreferente izaten jarraitzeko dela esan du Izarne Iglesias zinegotziak: «Tolosa sozioekonomikoki eta kulturalki biziberritzeko horrelako ekimenak ezinbestekoak dira».

Kultura herrikoia, eta oro har, kulturari oihartzuna eta indarra emateko helburuarekin sortutako ekimena dela azpimarratu du, eta «kultur arloko talde, eragile eta artisten artean sinergiak sortu eta areagotzeko».

Jaialdiaren aurkezpenean izan dira Jeajeaka kultur elkarte-ko ordezkari diren Xanti Nazabal, Zigor Sagarna, Manex Urruzola eta Garikoitz Llobregat, eta baita egitarauan parte hartuko duten artistetako batzuk ere, Jon Garmendia, Iraide Ansorena eta Alan Griffin, kasu.

Xanti Nazabal Jeajeaka kultur elkarteko ordezkariak aurkeztu du egitaraua, eta lehen ekitaldia didaktikoa izango dela azaldu du; hortik aurrera, kontzertuak izango dira. «Zamoratik eta Asturiastik etorritako musikarien saioez goatzeko aukera izango da. Nola ez, bertako musikarien saioak ere izango dira, eta baita herrikoenak ere».

Nabarmendu duenez, kontzertu guztiak gonbidapenekin izango dira, eta «bibe plataformaren bitartez edo kultur etxera joanda eskuratu beharko dira»; Oreak TXen kontzerturako sarrerak, berriz, Kutxabanken bidez erosi beharko dira. Dagoeneko eskuragarri daude, eta pertsona bakoitzeko gehienez ere bi hartu ahal izango dira.

TOLOFOLK JAIALDIA

Ikuskizun guztietarako gonbidapenak edo sarrerak eskuratu beharko dira. Oreak TX taldearen kontzertua 10 euro ordaindu beharko da, beste emanaldiak, doakoak dira.

Apirilak 7, asteazkena

19:00. Luis Astiazaran soinu kontzertuaren hitzaldia eta erakusketak, kultur etxean.

Apirilak 8, osteguna

19:00. Luis Antonio Pedrazaren kontzertua (Zamora), Plaza Berrian. Instrumentu ezberdinak joko ditu, eta piano jotzaile bat eta bi dantzari izango ditu lagun.

Apirilak 9, ostirala

19:00. Eneko Dorronsoro, Fredi Pe-

laez eta Peio Irigoien hirukoaren emanaldia, Plaza Berrian.

Apirilak 10, larunbata

12:00. Hector Braga (Asturias) Plaza Zaharrean. Bakarkako kontzertua eskainiko du. Instrumentu ezberdinak jotzen ditu.

19:00. Oreak TX taldearen *Koklea* emanaldia, Leidor antzokian.

Apirilak 11, igandea

12:00. Udaltxistulari Bandak kontzertu berezia eskainiko du, Berdura plazan.

19:00. Turlach: Alan Griffin, Arkaitz Miner, Juanjo Otxandorena eta Iraide Ansorenaren taldeari, herriko artistak gehituko zaizkio, Plaza Berrian.



MAGIAREN MAGIAK HARRAPATUTA

Magiaz beteriko eguna izan zuten larunbata, Zizurkil-en. Goizean goizetik, Gaztezulon egin ziren magia tailerrekin, magiaren munduan murgiltzeko aukera izan zuten herriko gaztetxoek. Eguerdian, Joxe Arregi plazako estalpean egin zuen agerraldia Marsel magoak, eta bertaratu-takoen artean ikusmina sortu zuen. Arratsaldean helduentzako saioak egin zituzten Zizurkil-go Magia Egunean, eta Imanol Ituiño, David Blanco eta Asier Kidam aritu ziren. JON MIRANDA



514 EURO, SAHARARRENTZAKO

Amezketako Zumadi eskolak 514 euro bildu ditu Saharara bidaltzeko. Tolosaldea Sahararekin elkartearen proposamenari eutsi, eta bonuen bidez ikasleek dirua eskolara eramateko aukera izan dute. Hilaren 22an, haur hezkuntzako irakasle eta ikasleek postua jarri zuten ikastetxeko jolastokian elkartasun bonuak herritar guztien eskura jartzeko. Aurten materiala zuzenean bidaltzea ezinezkoa denez, jasotako dirua zuzenean Saharako kanpalekuetara bidaliko dute. ATARIA

‘Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!’ dinamikarekin bat

Korrikaren bukaerako festak behar zuen igandean, baina pandemia dela eta ezin izan denez egin, bestelako ekitaldiak egin dituzte herritarrek

Erredakzioa

Euskal Herriko 80 herri inguruk hartu dute parte Korrikaren ekitaldietan, eta Tolosaldea ere ez da atzean geratu. Adunan, Altzon, Amezketan, Anoetan, Ibarrran, Ikaztegietan, Tolosan eta Zizurkilen herritar ugari hartu dute parte Korrikaren amaiera irudikatuz egin dituzten ekitaldietan.

ASKOTARIKO EKITALDIAK

Herri batzuetan ibilbidea osatu dute suziri eta furgoneta eta guzti, beste batzuetan abestiak eta bertsoak kantatu dituzte. Taldeko argazkiak egin dituzte guztietan, eta AEK-k ekitaldi amaierarako prestatutako mezu ere irakurri dute.

Adunan eta Zizurkilen ekitaldi bereziak egin dituzte, hala ere. Adunan 21,5.ena deitu diotenaren ibilbidea egin dute herritarrek, suziriak eta furgoneta eta guzti, eta horrekin batera, parte hartzaile bakoitzak oinetakoak utzi ditu. Jasotako oine-



Adunan taldeko argazkia atera zuten herenegun, Euskal Herri mailako ekimenarekin bat eginez. I. TERRADILLOS

tako guztiak Donostiako harreara sareari eman dizkiote, errefuxiatuen artean banatu ahal izateko.

Zizurkilen bere aldetik, astean zehar merkatariek eta elkarreetako kideek eraman dute lekukoa alde batetik bestera. Horrela eskertu nahi izan diete

herritarrei urteetan Korrikari eman dioten babesa.

Izan ere, 2021eko martxoaren 28ak egun berezia behar zuen, Korrikaren bukaera izan behar zelako, baina COVID-19ak bertan behera utzi du hori ere eta *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* dinamikak hartu du bere

lekua. Badira egutegian gorritz borobildu beharreko data berriak, hala ere: 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartekoak. Korrika datorren urtean itzuliko baita eta «inoiz baino beharrezkoagoa» izango dela esan dute AEK euskaltegiatako arduradunek.

Haustura Enirio-Aralar Mankomunitatean

Aralarko baserriar elkarteak, EHNEk eta ENBAk harremanak eten dituzte; Bilduri estrategia birpentsatzeko eskatu diote

Erredakzioa Abaltzisketa

Aralarko baserriar elkarteak, EHNEk eta ENBAk Larraizko langa ondoan egindako agerraldian abeltzaintzat «errespetua eta begirunea» eskatu dute eta iragarri dute, «sakoneko aldaketa eman arte», eten egingo dituztela Enirio-Aralar Mankomunitatearekin dituzten harremanak.

Josu Oiartzabal Aralarko baserriar elkarteak lehendakariak hitz egin du gainerako eragileen izenean eta aipatu du Enirio-Ara-

lar Mankomunitateko arduradun eta abeltzainen artean interlokuzioa asko zaildu dela azken urteotan.

Mankomunitatean gehiengoak duten udalak EH Bildukoak dira eta agerraldia eskaini duten eragileen ustez abeltzainak ez daude koalizio abertzalearen estrategia- ren lehentasunen artean: «Hitze- tatik harago, beren ekintzei begiraturaz gero, argi eta garbi geratzen zaigu soberan gaudela, ez bada oztopoan; hori begi bistakoa da, behin eta berriro, izen eta titulu ezberdinekin aurkezten zaizkigun programa eta egitarauetan. 20 urte atzera egin dugu kudeaketa moduetan eta horren erantzule diren pertsonak, baztertu ordez, indartu egin dituzte alderdi barruan». Plantoarekin bat egin du-

ten abeltzainak «oso kezkatuta» daude EH Bilduk Aralarren darman kudeaketarekin. Hartu diren neurriak abeltzaintza estentsiboa egiten dutenei «bizkarra emanda» hartu direla esan dute. Koalizio abertzalea elkarte ekologistekin «lerrokatuta» dagoela esan dute Aralarko baserriar elkarteak, EHNEk eta ENBAk. «Aralarko mendira igotzen diren 134 abeltzainetatik 109ren sinadurek ematen duten indarra baliatuz, publikoki salatzen dugu mankomunitatearen jarrera eta jokabidea». EH Bilduri dei egin diote berak gidatzen dituen udal- letxe guztietan, Aralarrekiko darman estrategia birpentsa dezan eta mendia eta ingurumena zaintzeko helburuan abeltzainek jokatzen duten papera aitortu de-

zan, «bai hitzez eta bai ekintzez». «Ezin dugu onartu abeltzaina alboratu nahi duen estrategia berri- ri», esan du Oiartzabalek.

Baserritarren elkarte eta sindikatuetako ordezkarien esanetan, Euskal Herriko gizartearen gehiengoak bat egiten du abeltzaintzaren bitartez kudeatu eta zaindutako mendiarekin eta Aralar bezalako mendietan eraman- dako dinamikarekin. «Gizarte osoak jasotzen du gure lanaren onura eta geuk, beste behin, mendietako ondarea kudeatu eta zaintzeko konpromisoari irmo eusten diogu».

Mendiak zaintzeko eta kudeatzeko «baldintza duinak» eskatu dituzte, bai larre tokietan, bai txabola eta bordetan. «Aziendaren maneja eta lan sistemak aldatzen doaz eta honek etengabeko hobekuntza eskatzen du lanerako baldintzetan eta hobetu eta bultzatu beharreko azpiegituren artean ezin ditugu alboan utzi txaboletara heltzeko bideak», esan du Oiartzabalek.

Gora egin du COVID-19an positibo eman dutenen kopuruak

Erredakzioa

Osasun sailak emandako datuen arabera, ostiraletik igandera 48 positibo egon dira Tolosaldean: Tolosan 23, Anoetan 5, Iruran 4, Amezketan, Baliarrainen eta Leaburu-Txaraman 3na, Asteasun eta Ibarran 2na, eta Adunan, Altzon eta Amasa-Villabonan bana. Osasun eremuei begiratu- ta, Alegiakoa dago 400dik gora, 491ko tasarekin.

Bestalde, larunbatean argita- ratu zuen Eusko Jaurlaritzak Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako neurri murriztaile- en dekretu berria eta indarrean da jada. 100.000 biztanleko 400eko intzidentzia tasa gaindi- tzen duten herrien zerrenda ere plazaratu zuen. Langa hori gain- ditzen duten herrietan itxiera perimetrala ezarri dute beraz, eta ostalaritzan, kirolean eta bes- te zenbait jardueratan murrizke- tak jarriko dituzte indarrean. Neurri berriak ez die eragiten Tolosaldeko herriei.

Hemeretzi herri dira orotara: bost Araban, beste horrenbeste Bizkaian, eta bederatzi Gipuzko- an. Araban, denak dira 5.000 biztanle baino gutxiagokoak: El- tziego, Elvillar, Iruña Oka, Urka- bustaiz eta Zigoitia. Bizkaian, ber- riz, 5.000 biztanle baino gehia- goko lau herri dira Elorrio, Ermua, Muskiz eta Ondarroa, eta beste bat txikiagoa, Berriz. Azke- nik, Gipuzkoan lau herri handi Beasain, Lazkao, Ordizia eta Urretxu eta bost txiki Ataun, Idiazabal, Olaberria, Zaldibia eta Zegama itxi dituzte.

Udalerrri horietan guztietan itxiera perimetrala ezarri da, bai- na hango biztanleek aldamene- ko herrira joateko aukera izango dute erosketak egitera eta aire zabalean kirola egitera. Halaber, kanpoko herritarrek herri horie- tara joan ahal izango dira baldin eta herriko ostaturen batean erreserba eginga badute martxo- ren 26a baino lehenagotik. Herri horietako taberna eta jatetxeeta- ko barrualdeak 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30era bakarrik egongo dira zabalik.

Zerrenda hori astelehenero berrikusiko dute, baina apirilaren 5a jaieguna denez Araba, Biz- kaia eta Gipuzkoan, apirilaren 6an egingo dute.



Lurgatz taldeak gonbidatuta Salhaketa Nafarroa, Joxemi Zumalabe, EH Bildu eta Demokraziarako Epaileak taldeetako kideek hitz egin zuten solasaldian. J.M.

Lurgatz talde feministak 'Espetxeak apurtu! Eta bortxatzaileak...' izenburupean mahai ingurua antolatu zuen joan den astean Villabonako Gurea aretoan

Nola epaitu erasotzailea?

Jon Miranda Amasa-Villabona

Espetxe sistemaren kontrako jarrera nagusitu zen Lurgatz talde feministak urrian antolatutako lehen mahai inguruan. Aurreko asteazkenean, Villabonako Gurea zineman antolatutako solasaldian iritzi hori berretsi zuten hizlariak. Horietako batek, Garbiñe Biurrun magistratu eta Demokraziarako Epaileak taldeko kideak esan zuen Espainiako Konstituzioak espetxe sistemari ezartzen dizkion egitekoak, hezteak eta birgizarteratzea, ez direla bermatzen; errealitatea eta legediaren arteko «haustura» aipatu eta galdera sorta planteatu zuen: «Estatua bada nor presoak hezteko? Zein oinarri behar du heziketa horrek? Birgizarteratu daiteke pertsona bat askatasunik gabe?».

Antzeko iritzia plazaratu zuen Salhaketa Nafarroa elkarteak kide Libertad Francesek. Antipunitibistatzat jo zuen bere burua eta kartzelen abolizioa eskatu: «Eskubideak bortxatzen diren toki bat da, pertsonen duintasuna erasotzen da. Nola gizarteratu nahi dituzte presoak, gizarretik

aparteko leku batean utzita?». Francesek nabarmendu zuen egungo zigor kodea urteetan gogortzen joan dela eta kartzela zigorra dela «izarra» ezarritako kondenen artean.

Gertutik ezagutzen ditu Larraitx Ugarte EH Bilduko kideak sistema judiziala eta espetxe sistema, ofizioz abokatua baita. «Desastre hutsa» dira bai bata eta bai bestea Ugarteren hitzetan. «Justizia administrazioa arkaikoa da. Formalismo handia dago, prozedurak konplikatuak dira, eta prozesua mingarria egiten zaio erasoak jasan duenari, haren eskubideak ez baitira bermatzen». Bereziki, indarkeria matxista sufritu duten emakumeen kasua aipatu zuen abokatuak eta aurreko asteko adibide bat ekarri zuen mahai gainera: «Lau aldiz kontatu behar izan du neska batek nola bortxatu duten. Badirudi, erasoak jasan duenak frogatu egin behar duela egin diotena, bere errelatua sinesgarri egin behar duela».

Horregatik Ugartek uste du indarkeria matxista jasan duen emakumeari aurrez gainera dator kionaren inguruko informazioa eman behar zaiola bide judiziala abiatu aurretik, «birbiktimizazioarako arrisku handia

baitago». Arrazoi horregatik eta egoera oso zaurgarrietan daudelako erabakitzen dute emakume askok epaitegietara ez jotzea. Francesen esanetan, genero indarkeria kasuen %8tan baino ez dira jartzen salaketak. «Uste dut justizia sistematik kanpora espazio zabala dagoela, zigorra erdigurean jarri gabe, gatazka sozial hauek konpontzeko eta eragindako minak, nolabait, sendatzeko».

KUDEAKETA KOMUNITARIOA?

Zeregin horretan jarduten dute Joxemi Zumalabe fundazioko Ainhua Narbaizak eta Marta Luxanek. Eraso matxistak gertatu izan direnean prozesu horiek kudeatzen lagundu izan diete herri mugimenduei. «Komunitatea inplikatu egin behar da eta konpromisoak hartu behar ditu. Prozesu hauek luzeak dira eta desgaste handia ekartzen dute. Kaka bat da baina kudeatzen asmatuz gero, agian eraikitzailea izan daiteke prozesua», esan zuen Narbaizak.

Prozesu horiek ez «erromantizatze» eskaera egin zuen Luxanek: «Edozein dela aukeratzen dugun bidea mina sortuko da, askotan erasoak berak sortu duena baino handiagoa, baina komunitatearen emantzipazioaz ari gara.

Bortxatzaile/bortxatu dikotomiaz harago, egiturazko arazo batez ari gara, eta energia handia eskatzen du hori eraldatzeak».

Prozesu horien balioa azpimarratu zuen Ugartek, baina «kontuz» ibiltzeko eskaera ere egin zuen, «justizia sistemaren eske ma bertsuak errepikatu daitezke elako eta askotan berme gutxiagorekin». Biurrunek, bere aldetik, justizia sistemaz haragoko bide horiek delitu guztietarako balio ote duen galdetu zuen: «Gaur egun gaizki egindako hori zigorraren bitartez ordaintzeko irizpidea gailentzen da, baina zenbait kasutan, egindako kaltea leuntzeko helburuarekin, justizia errestauratiboa martxan jarri izan da. Biktimaren eta biktimarioen arteko elkarrizketak kasu batzuetan lagungarri izan dira minak arintzeko. Baina delitu guztietarako erabili daiteke bide hori?».

Salhaketa Nafarroako kideak gatazka sozialak konpontzeko paradigma aldaketa eskatu zuen. «Delitua ez da Zigor Kodean agertzen den zerrenda, gizartearen ematen diren gatazkek baizik, oinarrian desberdintasunak daudelako sortzen dira gatazkek. Estatuari, ordea, ez zaio horiek konpontzeko kudeaketa komuni-

tarioaren bidea esploratzea interesatzen, nahiago du kartzelak betetzen jarraitu eta sistema elikatzen segi». Sistema heteropatriarkala ere bai: «Justizia berez egitura patriarkala da, eta adibide bezala aipatu daiteke, Espainiako Espetxe Erakundearen menpe zeuden 69 kartzeletatik 29tan soilik zeudela erasotzaile sexuali bideratutako programak 2017an. Nik justizia feministaz hitz egitea baino nahiago dut feminismo antipunitibistaz hitz egin».

«Estatua bada nor presoak hezteko? Birgizarteratu daiteke pertsona bat askatasunik gabe?»

GARBIÑE BIURRUN MANZISIDOR
DEMOKRAZIARAKO EPAILEAK

«Prozesu judiziala mingarria egiten zaio erasoak jasan duenari, haren eskubideak ez dira bermatzen»

LARRAITX UGARTE ZUBIZARRETA
EH BILDU

«Edozein dela hartzen dugun bidea, mina sortuko da, askotan erasoak sortu duena baino handiagoa»

MARTA LUXAN SERRANO
JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA

«Justizia feministaz baino nahiago dut feminismo antipunitibistaz hitz egin»

LIBERTAD FRANCES LEKUNBERRI
SALHAKETA NAFARROA

Bere burua antipunitibistatzat izanagatik, Ugartek uste du indarkeria matxista kasuetan parte hartzen duten aktore ezberdinen eragin daitekeela eta mugimendu feministak emakumea laguntzeaz gainera, presioa egin behar duela erakundeetan biktima erdigunean jarri dezaten, «hasi Udaltzaingotik, Ertzaintzara pasa eta epaitegietara bitarte». Espetxeen eskuduntza eskualdatzeak aukera batzuk zabaltzen dituela esan zuen EH Bilduko kideak eta horregatik osatu du koalizioak eskumena kudeatzeko 100 neurriko txostena. «Euskal Herrian eredu ez zigortzaileetan sakontzeko tarte handia dagoela uste dut. Azpiegitura zaharkituak daude eta jo dezakegu beste eredu batzuetara, non espetxealdien iraupena murriztu daitekeen, erregimen irekiagoak bultzatu eta presoentzat baldintzak hobetu daitezkeen. Kontsentsu zabala lortu daiteke horretan».

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

16. jardunaldia	
Lauburu Ibarra	5
Pinseque	1

Laskorain taldeak ez zuen jokatu, konfinatuta baitago

Sailkapena (2C azpimultzoa)

1. Tafatrans	45p
2. Lauburu Ibarra	37p
3. Otxartabe	37p
4. San Juan	35p
5. Juventud del Circulo	25p
6. Esc. Ciu. de Guadalajara	24p
7. Pinseque	23p
8. Auzoak de Zierbena	19p

Sailkapena (2D azpimultzoa)

1. Patatas Gomez Sala	23p
2. Tauste	20p
3. Villa de Quel	20p
4. Gora Grupo Iron	19p
5. Ibararte	16p
6. La Union Calatayud	13p
7. Laskorain	12p
8. Kukuyaga Etxebarri	12p
9. Castro Urdiales	7p

Hurrengo jardunaldia

Escuelas Ciudad de Gaudalajara (6)
Lauburu Ibarra (2)
Laskorain (7)
Villa de Quel (3)

HIRUGARREN MAILA

16. jardunaldia	
Tolosala (atsedena)	

Sailkapena

1. Lagun Onak	18p
2. Elorrioko Parra taberna	12p
3. Santurtzi	12p
4. Gernikako Lagunak Xaibor	9p
5. Tolosala	9p
5. Batzarre	7p
7. Scorpio Alkideba	4p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (5)
Skorpio Akideba (7)

SENIOR MAILA UDABERRI TXAPELKETA

2. jardunaldia	
Laskorain	9
Anoeta FT	2

Sailkapena

1. Ordizia	6p
2. Antiguoko	3p
3. Laskorain	3p
4. Anoeta FT	0p

Hurrengo jardunaldia

Antiguoko (2) - Laskorain (3)
Anoeta FT (4) - Ordizia (1)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

23. jardunaldia	
Barakaldo	32
Tolosa Eskubaloia	34

Sailkapena

1. Helvetia Anaitasuna	40p
2. Hierros Servando Eibar	38p
3. Ereintza Aguaplast	29p
4. Uharte	29p
5. Barakaldo	28p
6. Beti-Onak	27p
7. Tolosa Eskubaloia	23p
8. Romo Indupime	23p
9. Easygas Urduliz	23p
10. Egja	21p
11. Jacar San Antonio	21p
12. Estudio Matmata Zara. Ade.	21p
13. Dominicos Zaragoza	16p
14. Navarrete	9p
15. Avefor Huesca	5p
16. Alcorta Forging Group	5p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Eskubaloia (7)
Romo Indupime (8)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

20. jardunaldia	
Logroñes	1
Tolosa CF	1

Sailkapena

1. Berriozar	22p
2. San Ignacio	21p
3. Atletico Revellin	21p
4. Castejon	21p
5. Mulier	19p
6. Tolosa CF	17p
7. Oiartzun	15p
8. Logroñes	14p
9. Aurrera de Vitoria	13p
10. Arratia	9p
11. Itaroa Huarte	9p

Saskibaloia

1. MAILA GIZONEZKOAK

11. jardunaldia	
Redline Mekanika TAKE	
(Atsedena)	

Sailkapena

1. Leioa	7-3
2. Getxo	8-1
3. Fundacion Bilbao Basket	7-2
4. Redline Mekanika TAKE	7-1
5. Tecnum-Askatuak	5-5
6. Universidad Deusto Loiola	5-3
7. Ordizia-Basoa Banaketak	4-4
8. Estudios Y Obras Rekal. Una.	3-6
9. Atletico San Sebastian	2-8
10. Aranguren Multibasket	3-5
11. Disdira Bitxitegia	1-6
12. Arri BKL	0-8

Imanol Rojo nagusitu da Espainiakoan

Espainiako Txapelketan Alpino Uzturreko bederatzi iraupen eskiatzailek parte hartu dute

Imanol Garcia Landa

Ez da ezustekorik izan, eta Alpino Uzturre elkarteko Imanol Rojo tolosarrak irabazi ditu iraupen eskiko Espainiako Txapelketako hiru probak. Esprintean, klasikoan zein estilo librean irabazi du, beste behin goragoko maila batean dagoela erakutsiz.

Alpino Uzturreko beste zortzi eskiatzaile lehiatu dira, eta horietan nabarmentzekoa da Alaia Juaristik lortutakoa 18 urtez azpiko kategorian: esprintean eta estilo librean lehenengoa izan da eta klasikoan bigarren. Espainiako Kopan lehen postua lortu du Juaristik. Kategoría horretan elkarteko beste hiru eskiatzaile aritu dira: Olaia Plazasek bosgarren egin du esprintean, 9. klasiakoan eta bosgarren estilo librean; Naroa Amantegi 7. izan da es-



Imanol Rojo eta Alaia Juaristi, Espainiako Txapelketan. JULEN JUARISTI



printean, 6. klasikoan eta 9. estilo librean; eta Laia Arakama 8. esprintean eta klasikoan, eta 11. estilo librean.

Senior mailako Mikel Plazas esprintean lehiatu da eta bertan 5. postua lortu du. 20 urtez azpiko mailan bi eskiatzaile aritu dira: Ainara Lakuntza laugarren izan da hiru probetan eta Irene Amantegi bosgarren hiruretan. 16 urtez azpiko mailan Hodei Juaristik parte hartu du eta zazpigarren izan zen esprintean eta klasikoan, eta 9. estilo librean.

Alpino Uzturre elkartetik azal-

du dutenez, eskiatzaileak gustura daude emandako mailarekin. Bestalde, denboraldia «berezi samarra» izan dela azaldu dute: «Urtarrilean ondo hasi ginen, bi asteburutan txapelketak eginez, baina gero pandemiaren gaiarekin otsailerako eta martxorako aurreikusita zeuden txapelketak bertan behera geratu dira. Astebururo entrenatzera joan dira, baina gogorra egin zaie gero hain proba gutxi izatea». Espainiako Txapelketarekin eskiatzaileek amaiera eman diote denboraldiari.

Helmugan irabazle, sailkapenean bigarren

I. Garcia Landa

Ez da ohikoa izaten txirrindulari proba batean bi txirrindulari eskuak elkarrekin igota iristea helmugara, garaipena ospatzen. Asteburuan horixe gertatuta da Bergarako Gorla Igoera proban, eta protagonistak Unai Iribar ibartarra eta Asier Etxeberria izan dira. Biak dira Caja Laboral taldeko txirrindulariak eta biak iritsi ziren ihes eginda. Ez zuten garaipena lehiatu, baina sailkapenean norbaitek izan behar zuen lehenengoa, eta Etxeberria izan zen probaren irabazlea.

Bi talde oso indartsu falta ziren Gorlako Igoeran, Lizarte eta Caja Rural, eta horrek Laboral Kutxaren nagusitasuna ekarri zuen. «Gure taldea zen probako erreferentzia, nolabait lasterke-



Unai Iribar eta Asier Etxeberria, helmugaratzen. JULEN IRIONDO/GOIENA

taren ardura eraman zuena, eta alor horretan taldeak bikain egin zuen lan, uneoro kontrola eman ez», esan du Iribarrek. Azkene-ko Gorla igotzen ari zirela, bi txirrindulariek ihes egin zuten, eta batera iritsi ziren. «Bietako

zeinek irabazi azkenean gutxienekoa da. Taldearen garaipena izan zen, egun guztian zehar lana ondo egitearen emaitza», aipatu du ibartarrak. Hurrengo proba ostegunean izango dute, Durangon.

Txapela janztea lortu dute Ibarra taldekoek

Zortziko modalitatean, txapelketa mistoan lortu dute irabaztea, denboraldiari amaiera «ezin hobea» emanez



Ibarrako talde mistoa, sari banaketan. POTRONKO

Imanol Garcia Landa Ibarra

Ibarra sokatira taldekoak bigarren izan dira denboraldi honetan jokatu dituzten zortziko txapelketetan, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Beti Gazte izan dute aurretik. Larunbatean txapela janzteko azken aukera zuten, txapelketa mistoan, eta lortu egin zuten. Txapelketa guztiak bezala, larunbatekoa Getxoko Fadura kiroldegiko frontoian egin zen. Bost talde lehiatu ziren, eta Ibarra izan ezik, beste guztiak nafarrak: Txantrea, Antsoain, Beti Gazte eta Berriozar. Ibarra- ren ondoren, Beti Gazte sailkatu zen eta Txantrea izan zen hirugarren postuan.

«Lan txukuna egin genuen, oso ondo aritu ginen», esan du Oihane Sarasola Nosellasek, Ibarra taldeko sokatiralariak. «Taldea bezala lehenengo aldia zen tiratzen genuena. Urtero talde misto ezberdina izaten da, eta entrena-

tzen ere beranduago hasten gara, neskak eta mutilak bakoitzak bere aldetik aritzen garela-ko batez ere». Hasieran kostatu zitzairen elkar hartzea. «Taldea polita eta indartsua zen, baina elkar hartzen oso urduri ginen. Beroketetan ere hasieran ezin arrankaturik geunden».

Zozketa txukun tokatu zitzaie- la esan du Sarasolak: «Lehenengo tiraldia Txantrearen aurka izan genuen, eta ondo joan zen. Gero Berriozar izan genuen aurkari, eta gero eta hobeto joan ginen taldekideak elkar hartzen». Beti Gazteren aurkakoa izan zuten hurrengoa. «Tiraldi erabakigarria zen hori», gaineratu du Sarasolak. «Lehenengo hiru minutukoa izan zen. Bigarrena bi minutu ingurukoa. Lehenengo- an oso gustura aritu ginen tira- tzen eta gero bere emaitzak izan zituen. Talde bezala bloke bat ginen, oso ondo moldatuz. Beti Gazte orain arte bloke bat izan da

eta ondo aritu da, baina larunba- tean ezinean bezala zeudela na- baritzen zen. Haiek akatsen bat egiten zuten eta guk aprobetxa- tu egiten genuen». Lehenengo tiraldian hiru falta egin zituzten Beti Gaztekoek eta horrela iraba- zi zuten Ibarrakoek, soka ekarriz irabazteko gutxi falta bazitzaie- ere. Bigarrenengo tiraldian soka ekarriz irabazi zuten.

«Oso pozik» daudela gainera- tu du Sarasolak: «Denboraldia bukatzeko opari bat izan da. Denboraldia gogorra izan da, asko entrenatu dugu, eta beste txapelketatan lortutako zilarrez- ko dominarekin gustura gaude, baina txapela etxera ekartzea beste poztasun bat da. Denboral- di bukaera ezin hobea izan da». Pena izan dute ez dutela ospatu ahal izan besteetan bezala, elka- rrekin afari bat eginez: «Bakoitza etxekoekin joan da ospatzera, garai honetan horrela tokatzen da eta».



Tolosaldea trainerua, larunbateko estropadan. JOSUZ

Itsaso zakarrari egokitzea kostatu zaio Tolosaldeari

I. Garcia Landa

Bukatu dira denboraldi-aurreko estropadak, eta azkenekoan, la- runbatean egindako San Pedro- ko jaitsieran, seigarren amaitu du Tolosaldea traineruak. Pa- saiako badian eta itsasoan arraun egin behar izan zuten, eta nahiko zakar zegoen kanpoalde- an. «Kanpoan arraun egiteko oso zaila zegoen, eta kostatu egin zi- tzaigun egokitzea», esan du Patxi Francesek, Tolosaldea traineru- ko entrenatzaileak. «Aurrean ge- ratu ziren traineruak ondo ego- kitu ziren. Guk itsasoan gehiago saiatu beharko dugu, ez dago besterik».

Donostia Arraun Lagunak izan zen irabazle, eta ondoren Orio, Kaiarriba (Donostiarra), Zumaia, Hondarribia eta Tolo- saldea sailkatu ziren. Guztira ha- mabi traineruk parte hartu zuten eta Tolosaldea bigarren izan zen ETE ligakoen artean, Zumaiaren atzetik. Guztira lau estropada

egin dira denboraldi-aurre hone- tan, eta ETE ligako traineruak kontuan hartuta, Tolosaldea le- henengoa izan da estropada ba- tean, eta bigarren beste hirue- tan. Azken horietan bitan geldit- u da San Juan aurretik, eta azkenekoan Zumaia gailendu zaio. «Arraunlariak aldatzen joan gara estropadetan», esan du Francesek. «Denboraldi-aurrea da, baina garbi dago traineru guztiak egiten dutela arraun, eta prestaketa estutu egin beharko dugula iazko denboraldia egin nahi badugu. Marjina badago, eta horretan egin beharko dugu lan».

Behin denboraldi-aurrea bu- katuta, orain ETE ligaren hasie- rari begira jarri dira traineruak. Ekainaren 19an hasiko da liga, hain justu. «Bi hilabete eta erdi dauzkagu lan egiteko; denbora bada, baina garbi dago ezin gare- la deskuidatu, talde guztiak in- dartsu dabiltzalako», zehaztu du Francesek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO MARTXOAK 30
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 30

AGENDA

Deialdiak

Amezketeta. Jolas erraldoia. LH1-LH6 urteko haurrei zuzendurik, Fernando Amezketarraren plazan, 16:00etan.

Anoeta. Aberri egunaren harira, ikur-rinen banaketa, udaletxean, 10:00etatik 13:00etara.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Errepikapenak eta euskal musika. Apirilaren 6an itzuliko da ohiko programazioa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi eguzkitsua eta epela. Goizean zerua erabat garbi agertuko zaigu eta eguzkiak gogotik lan egiteko aukera izango du. Arratsaldean erdi eta goimailako hodei batzuk agertuko dira, baina batere ondoriorik utzi gabe. Haizeak hego-ekialdetik bizi joko du eta tenperatura maximoak 24-26 gradura igoko dira.

Bihar. Antzeko giroa. Berriro ere, goizean eguraldi eguzkitsua izango dugu eta apenas ikusiko dugun hodeirik zeruan. Arratsaldean erdi eta goimailako hodeiak ugarituko dira, baina ez dute ondoriorik ekarriko. Haizeak hego-ekialdetik harro jotzen jarraituko du eta tenperatura maximoak 25-27 gradu artean kokatuko dira.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



Pasa den ostegunean Trianguloa plazan aritu ziren grabaketa lanak egiten. IMANOL GARCIA LANDA

Tolosa, 'Maixabel' filmaren kokaleku

Maixabel Lasaren bizitzaren etapa bat kontatzen du pelikulak: bere senarra izan zen Juan Mari Jauregi ETak Tolosako Fronton kafetegian hil zuenetik hasita

Imanol Garcia Landa Tolosa

Ezohiko irudiak ikusi zituzten iragan astean Tolosako Trianguloa plazan eta San Frantzisko pasealekutik ibili zirenek. *Maixabel* pelikularen eszena batzuk grabatzen aritu ziren. Orain urte batzuetako auto batean bi kamera itsatsita ikusi ahal izan ziren, eta autoa gidatzen Luis Tosar aktorea. Horrez gain, Zerkausion ile apaindegi bat atonduta ikusi zitekeen, eta baita arropa gordezko leku bat ere.

Maixabel Lasaren bizitzaren etapa bat kontatzen du pelikulak: bere senarra izan zen Juan Mari Jauregi ETak Tolosako Fronton kafetegian hil zuenetik hasita, hamaika urte ondoren atentatuan parte hartu zuenetako batekin kartzelan solasaldi bat izan zuen artekoa. Koldo Zuazua ekoizleak azaldu duenez, urte horietan Maixabel La-

sak «gauza ikaragarriak jasan eta pasa zituen, eta bidaia horretan izan zuen eboluzio etiko eta morala pelikula batean kontatzeko oso interesgarria da».

Zuazuak orain dela 20 urte Julio Medemekin batera lan egin zuen *Euskal pilota: larrua harriaren kontra* dokumentalean, eta elkarrizketatuetako bat Lasa izan zen: «Bere lekukotza hunkigarria izan zen, eta hortik aurrera bere ibilbideari arreta jarri nion. 2011n *El País* egunkarian irakurri nuen Langraizko espetxean martxan jartzen ari ziren justizia errestrauratibo proiektuari buruzko kronika». Tartean Lasa eta bere senarraren hilketan parte hartu zuenaren arteko elkarrizketak zeuden. «Inolako instrumentalizazio politikorik gabe, lehen pertsona mina sortu eta sufritu zuten protagonistek beren burua aurkitzeko nahia zuten. Iruditu zitzaizkidan el-

kargune hura euskal gizartearen adiskidetzaren muina eta hasiera zela», azaldu du Zuazuak.

Hasieran dokumentala izan behar zuena, pelikula bihurtzeko proiektua bilakatu zen, eta Lasaren bizitza iruditu zitzaizkidan egokiena horretarako. «Pelikula egiteko gidoia idazten hasi ginean, Maixabelengana joan ginen bere baimena eskatzeko eta baietz esan zigun. Hortik aurrera gidoilariak, Isabel Campo eta Iciar Bollain, hainbat aldiz elkar-tu ziren berarekin, zein bere familiarekin eta baita lagunekin ere», zehaztu du Zuazuak.

Iciar Bollain da pelikularen zuzendaria, eta Blanca Portillo eta Luis Tosar dira aktore protagonistak. Larunbatean bukatu zituzten filmaketa lanak eta ondoren iritsiko da edizio lana. Filma aurtengo Donostiako Zinemaldian aurkezteko asmoa dutela azaldu dute.



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua



DOHAINIK



LANBIDE IKASTAROAK

Fabrikazioa Mekanikoa		
Txirbil harroketa mekanizazioa	80 ordu	2021/4/14
CNC Heidenhain	80 ordu	2021/5/17
Fresadora CNC FAGOR 8050/55/65	40 ordu	2021/4/19
Soldadura MAG	90 ordu	2021/4/12
Robot Soldadura	35 ordu	2021/4/12

Diseinua		
CAD 3D - Solid Works	60 ordu	2021/4/19
CAD 3D - Solid Edge	60 ordu	2021/5/21

Mantenua		
Siemens automatik Tia Portal nivel 1	40 ordu	2021/4/19
Sistema neumatiko eta hidraulikoak	70 ordu	2021/4/12
Hozgarri fluoratuen hozte-sistemen manipulazioa	6 ordu	2021/4/19

Informática		
Excel	50 ordu	2021/4/19

Besteak		
Eskorga Jasotzaileen erabilera	30 ordu	2021/4/12
Zubi motako garabeen erabilera	40 ordu	2021/4/26
Eskorga Jasotzaileen erabilera	20 ordu	2021/5/03

Izen-ematea:
Santa luzia, 17 20400 TOLOSA
tel: 943 65 11 47
e-mail: idazkaritza@tolosaldea.com
web: www.tolosaldea.com



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



EUROPEAN UNION
EUROPEAN UNION
EUROPEAN UNION